

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Alkatetzaren 2022ko abuztuaren 11ko Ebazpenaren laburpena (2022/314 Dekretua). Haren bi-dez, 2021. urtean seme-alabak jaio eta/edo adoptatzeagatik laguntzetarako deialdia egiten da**

BDNS(Identif.): 650599

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen hain zuzen:

<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/650599>

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Baldintza hauek betetzen dituzten gurasoak:

2021ean jaiotako edota adoptatutako seme-alabengatik emango dira dirulaguntzak.

Onuradunak bost urtez egon beharko du Amurrion erroldatuta azken hamar urteetan eta, horietatik bat, gutxienez, modu jarraituan eta jaiotzaren edo adopzioaren egunaren aurre-aurrekoan.

Familia unitatearen urteko diru sarrerak ezin daitezke izan 20.000 euro baino gehiago. Laguntzak eman ondoren aurrekontu partidan kreditu erabilgarria geratuz gero, eta kasu horretan soilik, eman ahal izango zaie laguntza urteko 20.000 eta 25.000 euro arteko diru sarrerak dituzten familiei. Diru sarreren bigarren tarte horretan dauden familiei emango zaizkien banan-banako gehieneko zenbatekoak ehuneko jakin batean gutxitu ahal izango dira, hain zuzen ere, diru sarreren lehenengo tarteari dagozkion laguntzak balioetsi eta eman ondoren erabilgarri dagoen aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko beharrezko ehunekoan.

Ezinbestekoa da eskatzailearen familia unitate osoa Amurrion erroldatuta egotea seme-alaba jaio edo adoptatzen den momentuan, eta eskabidea aurkeztzen den unera arte betetzen jarraitu behar da baldintza hori.

#### **Bigarrena. Helburua**

2021ean seme-alabak izan eta/edo adoptatzeagatik emango diren dirulaguntzak arautzea, norgehiagoka araubidean.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Behin betiko onetsi ziren, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, Amurrioko Udalaren 2022ko urtarrilaren 27ko osoko bilkuraren erabakia oinarri, eta haren eduki osoa urte bereko apirilaren 13ko ALHAOn (44. zk.) argitaratu zen.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdia 10.000 euroekin dago hornituta.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik 30 egun geroago arte.

Amurrio, 2022ko irailaren 27a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*